

José Luis Arévalo, Ermuko Roller taldeko arduraduna:

“Oreka lortu ostean, bi urte inguru behar dira maila egokia lortzeko”

Ermuko jende talde bat elkartu eta Ermua Roller taldea sortu zuten duela 4 urte. Hasieran taldean 5 lagun baziren ere, pixkanaka jende berria hurbiltzen joan da eta egun 50 kide inguru dira. Patinak jantzi eta herriz herri kirola egiteaz gain, lagunarte ederrean, Euskal Herriko hiri askotan patinatzeko aukera izan dute. José Luis Arévalo taldeko arduradunarekin izan gara.

- *Nolatan sortu zen taldea?*

Kasualitatez sortu zela esango nuke. Patinatzea gustuko genuen 5-6 lagun elkartu eta besterik gabe, elkarrekin ateraldiak antolatzen hasi ginen. Urteak aurrera egin ahala, jende berria hurbiltzen hasi zen. Gaur egun 50 lagun gara.

- *Zein da taldean dagoen jendearen adin tartea?*

Adin ezberdinekoak elkartzen gara. Gehienak 20 eta 45 urte bitartekoak gara baina tartean batzuen seme alabak ere badaude 2-14 ur-

te bitarte dituztenak.

- *Noiz elkartzen zarete?*

Astelehen eta asteazkene-
ro, Ermuko kiroldegian. 19.30etik 20.30era maila altuena dutenak eta 20.30etik 21.30era hastapen maila dutenak. Arkaitz Aja aritzen da maisu lanetan.

- *Zaila da patinatzen ondo ikastea?*

Lasaitasunez ekin beharra dago. Oreka lortu ostean, astiro joan behar da. 2 urte inguru behar dira maila egokia lortzeko. Frenatzen ikasi, mugimenduak landu.



Erorketa txar batek ondorio larriak utz ditzake.

- *Noiz hasten da patinatzeko denboraldia?*

Maiatza, ekaina eta uztaila dira hilabeterik egokienak. Eguraldia lagun, gozamen bihurtzen da. Udazkenean, patinatzeko aukera gutxiago izaten denez, barruan patinatzen dugu, hockey-an jokatzu adibidez.

- *Ermua inguruan ba al dago patinatzeko gune egokirik?*

Ez daukagu leku asko. Hambre ingurura joan beharra dago. Elgoibartik Maltzagarako bide gorria ere egokia da.

- *Herriz herri ere ibiltzen zarete...*

Patinatzeaz gain, herriak ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Gasteiz, Donostia, Bilbo, Iruña... kalez kale patinatzeaz gain, bisita turistikoak egiten ditugu. Lagun asko egin ditugu honi esker.

- *Noiz egiten dituzue atezaldiak?*

Asteburuetan izaten dira. Larunbat edo igandeetan.

- *Inguruko herrietan bada-go halako talderik?*

Badakigu Elgoibar aldean badela talderen bat baina Eibartik adibidez, guregana etortzen dira.

- *Zer esango zenioke Ermuko jendeari?*

Animatu daitezela. Ondo pasatzeko aukera nahi badu, lagunarte polita aurkituko duela Ermua Roller taldean. Informazio gehiagorako, facebook-en Ermua Roller jarri eta bertan aurkituko du informazio osoa.

- *Epe laburrean asmorik?*

Urrian 15 kilometro dituen lasterketa batean parte hartzeko asmoa dugu. 4 lagun han izango gara.

- *Besterik?*

Sarritan bide gorrietan oinezkoekin edo bizikletekin bat egiten dugun arren, errespetuz jokatzeko saiatzen garela eta horrez gain, Ermuan bidegorri gehiago izatea eskertuko genukeela bai patinatzeko zein oinezkoentzat ere.

Asier Ibaibarriaga



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean